




Zerbitzuen hazkunde nabarmena irailean

Zerbitzuen negozio zifra Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: INE.

Negozio zifrak lortutako maila handiena izan zen irail batean, 2005ean datuak argitaratzen hasi zirenetik. Ondorioz, urte arteko tasa %13,7koa izan zen. Era berean, sektoreko enpleguak bilakaera onarekin jarraitu zuen, %1,3 gehitu baitzen.

Hoteletako ostatu gauek aurrera jarraitzen dute

Hoteletan igarotako gaualdiak Urte bakoitzeko urria. Mila




Iturria: Eustat.

Urrian gaualdien errekorra izan zen Euskadiko hoteletan hilabete horretan. Zehazkiago, 630.000 gaualdi baino gehiago izan ziren, hau da, %17,4ko gehikuntza aurreko aldiko hil beraren aldean. Aurrerapen horri esker, lehen hamar horien metatuak 5.500.000 gaualdi gainditu ditu dagoeneko.



Industriako prezioak moteldu egin dira

EAEko industriaren prezioak
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Urrian, IPRIa %21,8an kokatu zen, aurreko hilaren aldean zortzi hamarren gehiago. Horrela, industria-prezioek lau hilabetez jarraian beheranzko joera eten dute, batez ere energiaren prezio altuek eraginda.

Euroguneko PMI konposatua %47,8koa izan zen

Euroguneko PMI konposatua
Indizea



Iturria: Markit.

Azaroko euro eremuko PMI konposatua puntu erdi igo zen aurreko hilaren aldean. Igoera hori gorabehera, ekonomiak uzurtze eremuan jarraitzen du, manufakturekin eta zerbitzuekin, ezin izan dutela hedapen-eremura iritsi.